



HIRUKI LARROXA

Herri txiki, aukera anitz

Zisheterodisidenteak garen pertsona gehienok hirietatik at sortu gara. Herrietan sortu, hazi eta bizi(raun) izan gara, herrietako dinamika heteroarautuek hirietara erbesteratu gaituzten arte, *sexiliatzera* behartu gaituztena arte.

Hirietara bizigarritasunaren, sarearen, komunitatearen bila jo izan dugu. Han jarri izan baititugu gure gogo eta asmoak, noizbait errotzeko asmoz. Hirietan, gure kideekin korapilatu gara, eraldaketarako ahaidetasunak eraiki ditugu eta, une askotan, jendartea gure ekin-tzekin eraldatzearen ziurtasuna ere izan dugu. Hirietan sortu eta sortzen ditugun komunitateak, beraz, beharrezkoak dira.

Baina, nahi gabe, hiri-joera horrek ere tranpa kapitalistan erorarazi gaitu. Izan ere, progresismoaren ideia faltsuak, eredu kontsumista traidore eta suntsikor batekin nahastuta, sinestarazi digu dena gertatzen dela hirietan, dena kolorezkoa dela, gure sexualitateak aukeraz beteriko lurzoru emankorrean azalera-tuko direla.

Baina hiriak jada ez dira hain bizigarriak eta, Yayo Herrerok esaten duen moduan, hiri baliabide materialak kontsumitu eta zaborra (emozionala ere) besterik sortzen ez duen egitatea da; noski, baliabideez gain, pertsonak kontsumitu eta ikusezindu egiten dituen ere, horiek muturreraino eraman arte.

Zer esan hirietan sortzen ari garen abangoardiazko komunitateei buruz. Askotan, *guayismo* eta itxurakeriaz beteriko harreman endogamikoak direla, non botere-asimetrietan oinarrituriko hiruzpalau guru *kultureta* edo akademikoren goraipamen iraunkorrek elite kultural, sozial eta politikoak sortzen laguntzen dituzten. Oso subertsiboak, disidenteak eta aurrerakoiak, bai; baina eliteak, azken finean.

Asko eta asko gara hiriak atzean utzi eta, zakua bete bizipen, herrietara jotzen dugunok komunitatea sortzeko asmoz. Eta, bizigarritasunaz ari bagara, herrietan pertsonon bizitzak bizigarriak egiten dituzten dinamika eta sareak ere badaude. Hori bai, horiek sustatu behar dira, ez dira ezerezetik sortzen.

Falta dena da, hain zuzen, hirietan LGBT+ pertsonok egin dugun lanketa guztia. Bailaraz bailara eta herriz herri, zisheterodisidenteok geure arteko artikulazioa gauzatu behar dugu.

Aktibista transfeministak garen alde-tik, ikusten ari gara nola herrietan berraktiba daitekeen ehun sozial eta politiko zisheterodisidentea. Eta profesional gisa, ikusten ari gara nola, udal mailako diagnostikoak eginez, posible den zisheteroarautik kanpoko sexualitateengan eragina izango duten politika publikoak diseinatzea. Zeren, bai, herrietan ere garena izateko aukera gure baitaiteke. ●

Idazketa

EVA PEREZ-PONS
ANDRADE

Urte batzuk igaro dira burutik pasatzen zaizkidan gauzak egunerokoan edo paperean jasotzeko ohitura hartu nuenetik. Formatuak anitzak izan dira: poemak, marrazkiak, nik bakarrik ulertu ahal ditudan esaldi solteak, narrazio gordinak, letra larriz idatzitakoak, xehez... Esan beharra dut geroz eta gutxiago praktikatzeko dudala unerik kritikoetan salbazioa edo ihesbidea izan dudana erritual hori. Eta gutxitan izan dut memoria horietara bueltatzeko tentazioa.

Autoezagutza ariketa bikaina da idazketa, bai arrazionaletik emozionalera jaisteko, bai eta alde emozionala ulertze-

ko ere. Denerako. Batzuetan autozentsura kontzientea eta metaforak erabiltzeko tententzia agertzen da, nahiz eta idatzitakoa (edo idatzi gabe geratzen dena) gelako apalategi batean beste hainbat libururen artean nabarmenduko ez den koaderno batean geratuko dela jakin. Nahiz eta sekula inork irakurriko ez duela jakin. Burutik papererako salto oso handia da, ideiek beste dimentsio bat hartzen baitute idaztean. Abstrakzioetik errelera saltoa. Ezagutzen ez zenuen *ni*-a eta bere limiteak onartu. Bai, bertigoa ematen du gure egieren publikoa soilik gu geu garen ere. ●